

ETENGABE ERALDATZEN ARI DEN ETORKIZUNERAKO TALENTUA

Posted on 10/03/2025 by Naider

Prospektiba sozioekonomikoko lan nagusiek aitortzen dute **talentuak gero eta garrantzi estrategiko handiagoa hartuko duela, lehiakortasunerako, berrikuntzarako eta nazioarteko posizionamendurako elementu kritiko gisa**, enpresentzat, herrialdeentzat eta eskualdeentzat, bai eta erakunde publiko zein pribatuentzat ere.

Talentua, horretaz erabat jabetzen ez bagara ere, gero eta ondasun urriagoa da munduan. Teknologia- eta lehiakortasun-**erronka handi eta azkarrei erantzutea**, eta XXI. mendeko gizarteari forma ematen dioten **eraldaketa** teknologiko-digitalei eta energetiko-klimatikoei **ekitea, jarrera eta gaitasun berriak dituzten profesionalak eta pertsonak behar ditu**.

Gure gizarte- eta produkzio-sistema egituratzen duten industria- eta zerbitzu-sektore tradizionalak lehiakortasuna galdu dute Europa osoan, eta, jakina, baita Euskadin ere. Kontinente zaharreko enpresak gero eta mehatxatuago daude globalizazio-prozesuaren dezelerazio gero eta nabarmenagoak eta Txinaren eta gorabidean dauden beste ekonomia batzuen indarra eta lehia gero eta handiagoak eraginda. Egia esan, prozesu konplexu bat da, garapen teknologiko disruptibo batekin batera doana, gure bizimodua eta ekonomiaren funtsezko sektoreak erabat eraldatzeko ahalmena duena: karbono isuririk gabeko industria, bankurik gabeko finantzak, plataformetan oinarritutako merkataritza, gidaririk gabeko ibilgailu adimendunak eta mugikortasun modu berriak, blockchain bidezko transakzioak, aisialdi digitala... Eta, hori gutxi balitz, adimen artifizialaren garapen indartsu bat, egungo okupazioen zati handi bat ordezkatu edo zaharkituta uztearekin mehatxatzen duena.

Erabateko eraldaketa behar da, talentua behar duena, eta belaunaldien arteko ordezkapena aldaketei ekiteko nahikoa izango delakoan egotea, biztanleriaren zahartze progresiboari begiak itxiz, ausarkeria da, argi eta garbi. **Gure eredu sozioekonomikoaren bideragarritasuna talentuaren politikaren arrakastaren arabera izango da**, harreman sozial, ekonomiko eta laboralen esparru berri batean aurrerapena sortzeko gaitasunak eta trebetasunak dituzten pertsonak izatearen arabera.

Horretarako, **Euskadik** bere apustuak indartu behar ditu. **Publikoaren eta pribatuaren artean indarrak batzea, garrantzi handiko ekimenak eta ekintzak bultzatzeko**, talentua sortzeko, atxikitzeko, erakartzeko eta fidelizatzeko, abantaila ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak aprobetxatuz.

Baina zer talentu mota behar da? Ez da erantzun erraza duen galdera bat, baina, zalantzarik gabe, estrategia ardazteko gakoa da. Iraganean, zientzia-arloan pertsona bikainak erakartzean zentratu da, eta, zalantzarik gabe, arlo hori funtsezkoa da, baina **gaur egungo beharrak espektro zabalagoak dira** eta zientziaz askoz harago doaz.

Euskadik **pertsona ekintzaileak** behar ditu, negozio-ideia berritzaileak garatu eta enplegu kualifikatuak eta aberastasuna sortzen dituzten enpresa lehiakor bihurtzeko.

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoak bere **erakunde- eta enpresa-sarea indartu behar du**, askotariko profilekin: langile oso kualifikatuak, zerbitzu berriak diseinatzeko eta digitalizazioko eta teknologiko prozesu intentsiboak gidatzeko, eta ingurune globaletan diziplina anitzeko taldeak gidatzeko eta negozio-eredu deszentralizatu eta kooperatibo berriak gidatzeko gai diren zuzendaritza-koadroak.

Horrez gain, **administrazio publikoek** pertsonak behar dituzte **beren zerbitzu nagusiak** eremu soziosanitarioan, hezkuntzan eta segurtasun publikoan **eraldatzeko** eta gizarte-eskaera berrietara eta aldaketa teknologiko azkar eta disruptibora egokitzeko.

Talentuaren eremuan eraldaketa horren **motorrak** ezagunak dira. Alde batetik, **talentua sortzeko gaitasuna** dago, unibertsitatei eta prestakuntza arautuko zentroeiei balioa emateaz gain, ahalik eta gehien ustiatu behar dituen bizi-aldi osoan prestakuntza, ekintzailetzaren sustapena, maila guztietako ikastetxeen eta enpresa-ehunaren arteko lankidetzak eta lanpostuko esperimentazioak bera.

Bestetik, Euskadik **pertsonek lurraldearekin dituzten loturak koipeztatu eta sendotu behar ditu**. Batez ere bizitza profesionala hasten duten gazteenak, baina baita jada ezarrita dauden profesionalenak ere, prestakuntzaren eta bizitza profesionalaren arteko zubi dinamiko eta malguak aktibatuz.

Azkenik, aurreko bi motorrak erabat gripatuta egongo lirateke ahalegina eskutik helduta ez badao eta pertsonak eskatzen dituen **enpresa-sare berritzaile, dinamiko eta lehiakor baten artikulazioarekin** sinkronizatuta badago, baita **ezagutzera ematen den lurralde** batekin ere, nazioartean talentua saritzeaz eta bilatzeaz arduratzen dena eta, gainera, kanpotik datozenei ongietorria ematen eta harrera egiten ahalegintzen dena, etxean bezala senti daitezen.



